

*Ageriko begiradak.* Alba Sotorra.

Dokumentala. Zine Ikusezinaren 6. edizioaren atariko emanaldia.

Noiz: ekainaren 26an. Non: Bilboko Kafe Antzokiko Zine txokoan.

## Kultura, barnetik kanpora

ZINE IKUSEZINAREN 6. EDIZIOA egingo da irailean, Bilbon, Kultura, Komunikazioa eta Garapena gobernu kanpoko erakundearen eskutik. Izenak berak dioten bezala, ohiko zine aretoetan ikusten ez diren film eta dokumentalak erakustea du helburu. Garapen bidean eta ohiko begiradetatik urrun dauden herrialdeei buruzko dokumentalak izaten dira, askotan emakumeek egindakoak. Herrialde hauen kultura eta komunikazioa bultzatzeko beharrezkoak direla uste dute antolatzaileek. Horregatik, urtero, Bizkaiko hiriburu zenbait aretotan, tartean Golem zinemak eta zenbait ikastetxe, eduki sozialeko film hauek erakusten dira irailean.

Jaialdiaren atariko gisa, *Ageriko Begiradak* dokumentalaren euskarazko bertsioa ikusi ahal izan genuen aurreko astean Kafe Antzokiko Zine txokoan. Gogora ekar dezagun lan honek emakume batek eginiko film onenaren saria jaso zuela jaialdi honetako 2010eko edizioan. Alba Sotorra kataluniarra du egilea eta Bosnia, Iran, Afganistan, Pakistan eta Turkiako bost emakume musulmanen istorioak ditu ardatz. Emakume hauen bizipenek osatzen dute dokumentalaren muina, baina, sortzaileak ere badirenez, barruko

mundu batetik ageriko mundura egin duten jauzia azaltzen du.

Emakume hauek epaitzetik urrun, Sotorrak, mundu islamarra eta, batez ere, kultura horretan bizi diren emakumeen gaineko estereotipoak apurtzeko saioa egin du. “Pentsatzea galarazten diegu, berdintasuna eta askatasuna zer den esanez”, adierazi zuen zuzendari kataluniarrak. Dokumentala egiteko, 13 hilabete eman zituen Balkanetan eta Ekialde Hurbi-lean barrena bidaiatzen, askotan autostop eginez. Bidean aurkitzen zituen pertsonen etxetan hartzen zuen ostatu, sarritan. Horrela ezagutu zituen Alma Suljevic, Sarajevon (Bosnia); Eren Keskin, Istanbulen (Turkia); Rakhshan Barni-Etemad, Teheranen (Iran); Moshgan Saadat, Heraten (Afganistan); eta Nihid Siddiqui, Lahoren (Pakistan). Performantza, musika, zinemagintza, literatura eta dantza dira emakume hauek lantzen dituzten arloak, askotan debekatuak euren jatorrizko herrialdeetan, eta hain zuzen horregatik, erbestera, jazarriak eta kartzelaratuak izan dira.

Dokumentalaren istorioa Sarajevon hasten da. Alma Suljevicek, Bosniako zelaian gerra ostean geratu diren minak desaktibatzea du lanbide. Nekeza baina askatzailea egiten

zaion zeregin hau oinarritzat hartuta, munduko hainbat herritan egona da Alma, eta performantzak egiten ditu mina zelaian hartutako lurraekin. Eren Keskin Istanbulen bizi bada ere, emakume kurdua dugu. Eskubide zibilak defendatzen dituen abokatu da, eta Turkiako kartzeletan birtxatuak diren emakumeak defendatzen ditu. Abeslaria ere bada. Rakhshan Barni-Etemad Teheraneko telebista kazetaria bazen ere, egun zinemagilea da, Iranen debekatuta dauden hainbat gai lantzen ditu, hala nola, prostituzioa eta drogamenpekotasuna. Moshgan Saadat, dokumental honetan ageri den emakumerik gazteena da, idazlea da, Afganistan talibanen menpe zegoela, mutil itxura hartu behar izan zuen, gauza guztien gainetik maite duen poesia idazten jarraitzeko. Azkenik, Nihid Siddiqui Pakistango dantza tradizionalako dantzaria dugu, erbestera izan zen garai batean, “dantzan egitea galarazi zidaten, eta hori heriotza zigorra baino larriagoa da niretzat”, dio dokumentalean. Dagoeneko bere herrira itzuli da eta bertan kathak –Pakistango dantza tradizionala– eskolak ematen ditu”. ■

**Myriam Garzia**



Elxalde Auzoa, 22 · Galdakao, Bizkaia  
Tel.: 94 456 00 05 · www.andra-mari.com